



## IV. ERANSKINA

### 2020-2021 IKASTURTEKO ESKOLA-KIROLEKO JARDUERETAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK ETA PREBENTZIO-NEURRIAK EZAGUTZEKO, ONARTZEKO ETA HAIEKIN KONPROMETITZEKO DOKUMENTUA AITA/AMAK EDO TUTOREAK

..... jaunak/andreak, NAN/AIZ zenbakia ..... duenak, bere izenean eta ..... interesdunaren (adingabearen) aita/ama/tutore gisa,

#### HONAKOA ADIERAZTEN DUT:

- Jaso eta irakurri dut jardueraren ardura duen Bera Bera erakundeak COVID-19ari aurre egiteko prestatu duen Prebentzio eta Jarduketa Protokoloa, eta badakit bertan zer ezartzen den.
- Hitzematen dut Bera Bera-rekin lankidetzan jardungo dudala protokoloan ezarritako neurriak, bereziki nire ardurapean dudan seme-alaba edo adingabea kontzientziatzearekin eta sensibilizatzearekin zerikusia dutenak, betetzeko, prebentzio- eta higiene-neurriak hartzeko bere erantzukizun indibidualari dagokionez.
- Saio, entrenamendu edo lehiaketa bakoitzaren aurretik egiaztatuko dut nire ardurapean dudan seme-alabaren edo adingabearen osasun-egoera, eta COVID-19ari lotuta egon daitezkeen sintoma ohikoenetako bat badu, adibidez, 37°tik gorako sukarra, hotzikara, eztula, airea falta denaren sentazioa, usaimena eta dastamena galtzea, eztarriko mina, giharretako minak, buruko mina, ahulezia oro har, beherakoa edo gorakoa, ez da jarduerara joango. Horrez gainera, berehala emango diot egoera horren berri Bera Bera-ko osasun-arduradunari eta dagokion osasun-zentroari.
- Era berean, Bera Bera-ko osasun-arduradunari jakitera emango diot familiako bizikidetzak unitateko pertsona bat (kirola egiten duen adingabea bera edo beste pertsona bat) COVID-19a diagnostikatu diotelako isolatuta badago edo COVID-19aren sintomak dituen edo COVID-19a diagnostikatu dioten pertsona batekin harreman estua izategatik etxean berrogeialdia betetzen ari bada.
- Baimena ematen dut, baldin eta COVID-19a diagnostikatutako pertsonen kontaktuak aurkitzeko osasun-agintariek eskatzen badute, erakundeak nirekin edo tutorea den beste pertsona batekin harremanetan jartzeko erregistratuta dituen datu pertsonalak emateko.
- Nire ardurapean dudan seme-alaba edo adingabea ez dago osasun-agintariek ezarritako arrisku-talderen batean, edo, hala balitz, egoera horren berri emango diot Bera Bera-ri jarduerari hasiera eman aurretik, eta, kasu horretan, nire erantzukizunpean parte hartuko du jardueran.
- Onartzen ditut Bera Bera-k jardueretan parte hartzeko ezarritako baldintzak eta, ondorioz, baimena ematen diot nire ardurapean dudan seme-alabari edo adingabeari 2020-2021 ikasturteko eskola-kiroleko programan parte hartzeko.

Donostian, 2020-ko \_\_\_\_\_ren \_\_\_\_ (e)an

Izenpetua: